



PROGRAMA-KONTRATUA EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) HERRI-ERAKUNDEAREKIN 2022-2025 ALDIRAKO

Gasteizen, 2022ko martxoaren 8an

BILDU DIRA

Eusko Jaurlaritzaren izenean, Bingen Zupiria Gorostidi jauna, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua.


Euskal Irrati Telebista herri-erakundearen izenean, Andoni Aldekoa de la Torre jauna, Euskal Irrati Telebista herri-erakundearen zuzendari nagusia.

ADIERAZTEN DUTE

1. Euskal Irrati Telebista herri-erakundea (hemendik aurrera EITB) sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen lehenengo artikulua erakunde horri esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari irratia eta telebista-zerbitzuen titular moduan dagozkion eginkizunak, eta EITBk EITB Media SAU sozietate publikoaren bitartez kudeatzen ditu telebista, irratia eta Internet zerbitzuak. Esleipen hori aintzat hartuta, Euskal Irrati Telebista sortzeko 5/1982 Legearen 45. artikulua ezartzen duenez, "Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatzeko da Euskal Irrati Telebista herri-erakundea", eta ahalmena ematen dio hauexek jasotzeko: "...egiten dituen jardueren diru-sarrerak eta errendimenduak".
2. Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua arautzeko Europako esparruaren oinarria Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan dago (167. artikulua). Oinarri horren gainean onetsi zen martxoaren 10eko 2010/13/EB Zuzentaraua (Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen zuzentaraua), ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak emateari buruz estatu kideek

dituzten zenbait lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak koordinatzekoa. Zuzentzarau horrek 2018/1808 Zuzentzarauak aldatu eta eguneratu du, merkatu digital bakarrerako estrategiaren parte den aldetik. Zuzentzarauon arabera, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak kultura-zerbitzutzat hartzen dira, baita zerbitzu ekonomikotzat ere; izan ere, identitateak, balioak eta esanahiak dituzte, eta, beraz, ez dira balio komertziala soilik izango balute bezala tratatu behar.

3. 2018/1808 Zuzentzarauak, Lehenengo Oinarrian, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen merkatuak izandako bilakaera azkarra islatzen du. Bilakaera bizkor hori gertatu da aurrerapen teknikoek erabiltzaileen zerbitzu eta esperientzia mota berriak ahalbidetu dituztelako eta ikusteko ohiturak nabarmen aldatu direlako. Alde batetik, ikusle askok telebista-pantailak ez diren gailu mugikorak aukeratu dituztelako ikus-entzunezko edukiak ikusteko. Bestalde, eduki mota berriak ugaritu direlako hala nola bideo laburrak edo erabiltzaileek berek sortutako edukia.
4. Aurrekoaren ondorioz, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen merkatuan gertatzen ari diren aldaketa sakonei aurre egiteko erregulazio-oinarriak ezarri nahi ditu 2018/1808 Zuzentzarauak.
5. Europan, praktika zabaldua da estatu kideek ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa finantzatzeko bideak antolatuta edukitzea, betiere finantzaketa zerbitzu publikoko funtzioa gauzatzeko ematen bazaie irratidifusioko erakundeei, estatu kide bakoitzak esleitu, definitu eta antolatzen duen moduan. Ildo horretan, argi eta garbi definitu behar da zein den erakunde publikoari tresna ofizial bidez esleitzen zaion zerbitzu publikoko funtzioa, eta funtzio hori agintaritza eskudun batek edo horretarako izendatutako erakunde batek kontrolatu beharko du.
6. Zerbitzu publikoko eginkizunaren helburu orokorrak garatu eta zehaztea batetik eta ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emaila publikoek jasoko duten finantzaketa publikoa kalkulatzeko parametroak bestetik dagokion programa-kontratuaren bidez egin behar dira. Programa-kontratu hori, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Irrati Telebista (EITB) zuzenbide pribatuko herri-erakundearen artean formalizatu beharko da.
7. Orain arte indarrean dagoen programa-kontratua 2016-2019 ekitaldietarako sinatu zena da, eta programa-kontratu berria onartu arte luzatu da.
8. EITBri esleitutako betebeharrak esparrua berritzeko unea da, eta programa-kontratu berria onartu behar da, batez ere bi arrazoi hauengatik:
 - a) 4. azalpenean adierazi den bezala, argi dago EITBk eta haren mendeko sozietateak (EITB Media SAU), esleitu zaien ikus-entzunezko zerbitzu publikoa eman behar duten agertokia nabarmen aldatu dela azken programa-kontratua formalizatu zenetik. Horregatik, guztiz beharrezkoa da berritzea, euskal ikus-entzunezko ekosistema publikoak datozen urteetan aurre egin beharko dien erronka berriei erantzuteko eta



euskal gizartearen premia, lehentasun eta kezkekin bat datorren zerbitzu publikoa ematen jarraitzeko.

- b) Horrez gain, ikus-entzunezko ekosisteman gertatzen ari diren aldaketa sakon horiek EITB Taldearen enpresa-egituraren ere islatu dira, lau sozietate filial izatetik (Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.U.; Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.U.; Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.U.; eta Eitbnet S.A.U.) sozietate bakar bat izatera igaro baita, EITB Media, S.A.U., hedabide guztiak biltzen dituen. Sozietateak bat egiteko eragiketa 2020an gauzatu zen, zerbitzua transmedia eskaintzeko aukera bultzatzeko, egungo ikus-entzunezko kontsumoaren errealitatearekin bat datorrena. Horren ondorioz, programa-kontratua berriro beharra dago, behin antolaketa-aldaketa finkatuta, EITBren zerbitzu publikoko misioak eta konpromisoak, ikus-entzunezko zerbitzu emaile publikoa den heinean, eta horiek lortzeko izango dituen bitartekoak zehaztasun handiagoz doitu eta definitzeko.


9. Aurrekoa oinarri hartuta, programa-kontratu honek honako hau ezartzen du:

- EITBren Zerbitzu Publikoaren deskribapena.
- EITBk zerbitzu publikoa emateko bere gain hartzen dituen konpromisoak.
- EITBren zerbitzu publikoko jardura finantzatzeko modua.
- Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak EITBren finantzaketari dagokionez.
- Programa-kontratuaren gauzatzea kontrolatzeko mekanismoak.

10. EITBren eta haren sozietate filialaren kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa finantza-jasangarritasunaren printzipioaren eta aurrekontu-orekaren printzipioaren arabera gauzatuko da beti, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritik.

Oinarri horiek kontuan hartuta, eta EITBren izaera eta eginkizunak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da esparru bat ezartzea, irrati-difusioko zerbitzu publikoa emateko oinarri izan behar duten printzipioetatik abiatuta, alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa emateko misioa eta Erakundeak bere gain hartzen dituen konpromisoak zehazteko, eta, bestetik, 2022-2025 aldian Eusko Jaurlaritzak finantzaketa publikoaren aldetik bere gain hartzen dituen konpromisoak zehazteko, hain zuzen programa-kontratu honetan definituriko EITBren zerbitzu publikoko konpromisoak betetzeko beharrezko egonkortasuna eta eraginkortasuna emate aldera.

Horrenbestez, 2022ko otsailaren 22ko Gobernu Kontseiluak aldeko erabakia hartu ondoren, alderdiek programa-kontratu hau sinatu dute, honako klausula hauen gainean egituratuta:



KLAUSULAK

1. Xedea

Programa-kontratu hau EITB sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legean oinarritua dago —zeinak EITB herri-erakundeari egozten baitzikio Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoen eginkizunak—, eta beronen xedea da 2022-2025 aldian bi alderdien arteko harremanak zehaztea.

2. Helburua


Programa-kontratu honen helburua da beronen indarraldian esparru bateratzaile bat ezartzea Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren arteko harremanetarako, azken horri egotzi zaizkion irrati eta telebista zerbitzu publikoa emateari dagokionez. Horretarako, esleitutako zerbitzu publikoko misioaren definizioa ezarri da, horrek dakartzan edukiak zehaztuta, eta, era berean, modu integratuan, EITBri zerbitzu publiko hori kalitate-baldintza onenetan ematea ahalbidetuko dion finantzaketa egonkorra definitu da.

Esleitutako zerbitzu publikoa EITBk eta EITB Media sozietate publikoak emango dute. Horretarako, formalki esleituta dituen irrati eta telebistako emisio-kanalak erabiliko ditu (aurrerago deskribatuko dira), baita Internet eta media berriak ere. Nolanahi ere, teknologiaren aldetik egokiak diren beste bide batzuk erabili ahal izango ditu programa-kontratu honetan egituratzen den zerbitzu publikoko misioa lortzeko. Bide horiek, edozelan ere, lan hori betetzeko esleitutako baliabide ekonomikoen araberakoak izan beharko dute.

3. Zerbitzu publikoaren prestazioaren deskribapena eta printzipioak

3.1. EITBk programa-kontratu honetan aipatzen diren komunikabide sozialen zerbitzu publikoko jarduera garatuko du, aplikatu beharreko xedapen orokorrei eta bereziki EITB sortzeko **5/1982 Legean** ezarritako printzipioei eutsita uneoro:

- a) Albisteen objektibitatea, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna gordetzea.
- b) Informazioaren eta iritziazen arteko bereizketa eta banaketa, azken horren kasuan esataria nor den adierazi beharko delarik. Tratamendu berdina (desberdindua eta banandua) eskatuko du publizitate komertzialak.
- c) Berdintasun-printzipioa eta pluralismo politikoa, erlijiosoa, soziala, kulturala eta linguistikoa errespetatzea.
- d) Autonomia Estatutuan onartutako bizikidetzaren balio zibikoak defendatzea eta sustatzea, interes orokorraren alde.



- e) Autonomia Estatutuak aitortzen dituen eskubide guztiak errespetatzea
- f) Pertsonen ohorea eta ospea errespetatzea, eta, bereziki, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea errespetatzea.
- g) Gazteak eta haurrak babestea eta sustatzea.
- h) Euskararen sustapena; euskararen erabilera bultzatze aldera, autonomia-erkidegoan euskarazko irrati eta telebisten eskaintza bermatzeko oinarriko programazio-printzipioak ezarriko dira.
- i) Euskal kultura edozein hizkuntza ofizial, adierazpen, hedabide, baliabide eta adierazpidetan sustatzen eta hedatzen laguntzea.

3.2. Europako arauetan eta Estatuko nahiz autonomia-erkidegoko legeetan xedatutakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio **irradi-difusioko zerbitzu publikoaren eredua** eta haren finantzazioa finkatzea, betiere, printzipio hauek beteta:

- i) **zerbitzu publikoaren atribuzioa eta definizioa** ezartzea;
- ii) **mandatua duen enpresatik independentea den erakunde batek zerbitzuaren kontrola, ebaluazioa eta hobekuntza** egitea;
- iii) **zerbitzu publikoaren xedea** betetzeko **beharrezko kostura mugatzea finantzazio publikoa** (proportzionaltasuna);
- iv) **zerbitzu publikoko jarduerak eta diru-sarrera** komertzialak bereiziko dituzten **kontabilitate-prozedurak** ezartzea (gardentasuna); eta
- v) **zerbitzu digital berriak** ebaluatzea, gizartearen behar sozial, kultural eta demokratikoei erantzuten dietela egiaztatzeko.

3.3. Horren arabera, programa-kontratu honek EITBk euskal gizarteari irrati eta telebista publikoaren eredua barruan eman behar dion zerbitzua ezartzen du programa-kontratuaren indarraldirako. Telebista, irrati eta Interneteko eskaintzen bidez, zerbitzu publikoko eginkizuna garatzen da, honelakoa izan dadin:

Unibertsala eta pertsona guztientzat irisgarria: eduki eskaintza leku, egun eta ordu guztietan, hedabide ezberdinetan, eta euskal gizartearen aniztasunari erantzunez.

Orotarikoa: era guztietako edukiekin eta generoekin, eta askotariko programazioekin, euskal gizarte osoak informazioaren, kulturaren, formazioaren eta entretenimenduaren aldetik dituen beharrak asetzeko, euskaraz eta gaztelaniaz.

Irekia: euskal kultura munduan bermatu eta zabaltzeko, kontsumo ohitura eta media berriak kontuan hartuta.

Jasangarria: finantzaketa publikoarekin eta diru-sarrera propio osagarriekin, eta baliabideen kudeaketa eredugarri eta aurreratuarekin


Gardena: bere gobernu-organoen eta gizartearen aurrean behar den informazio guztia emanez, ezarritako helburuen lorpenari eta EITBren izateko arrazoiari buruz kontuak eman ahal izateko.

3.4. Zerbitzu publikoko eginkizun publikoa betetzeko, EITBk telebista, irratia, internet eta media berriak jarriko ditu, honako ezaugarri hauekin:

- i) eskaintza osoa, askotarikoa eta orekatua;
- ii) Euskal Autonomia Erkidegoan eta euskararen gainerako lurraldeetan estaldura emateko banaketa-sistema egokiak;
- iii) zabalkundea, kanpoan diren euskal gizataldeengana eta Euskadiri lotutako edukiekiko interesa edo jakin-mina dutenengana iristeko;
- iv) lehiatzen den puntako enpresen teknologiarekin bat datorren ekoizpen- eta banaketa-teknologia;
- v) hori guztia modu eraginkor eta efizientean kudeatzen da, zerbitzu publikoaren xedeetara bideratutako baliabideekin eta kudeaketa gardenarekin.

3.5. EITBk, bere jardueran, jendeak ezagut dezakeen marka bat erantsiko die bere produktuei. Hauek izango dira marka horren **identitate- edo estilo-ikur zehatzak:**

- i) zerbitzu publikoaren konpromisoekin bat datorren profesionaltasun- eta estilo-irizpideekin garatutako **kalitatezko** programazioa;
- ii) **informazio-zerbitzu** egiazkoak eta askotarikoak, audientziak sinesgarritasunagatik eta hurbiltasunagatik balioetsiak;
- iii) **entretanimendua**, zerbitzu publikoaren misioa den aldetik, euskal gizartearen hizkuntza- eta kultura-eskakizun eta -berezitasunei erantzuteko;



- iv) gizarte moderno baten gizarte-motibazioak islatzen eta inspiratzen dituzten edukiak dituen **eragile eraldatzailea**;
- v) **euskararen eta euskal kulturaren** erabilera sustatzeko, gizartea sentsibilizatzen laguntzea;
- vi) **eduki multimedialak** ekoiztea, ikus-entzunezko talde publikoaren ospea eta irudi moderno eta irekia lortzen lagunduko duten ideia eta formatu berriekiko jarrera irekiari eutsiz;
- vii) **generoen arteko oreka eta ekoizpen propioaren** garrantzi berezia, kalitateari eta kantitateari dagokienez;
- viii) **inpaktuaren eta irudiaren** oreka edukien eskaintzan, zerbitzu publikoaren errentagarritasun sozialaren printzipioarekin bat etorritz;

3.6. Premisa horiek guztiak kontuan hartuta ezartzen dira **zerbitzu publikoaren printzipioak**, eta printzipio horien bidez honako hauek babesten dira:

1. **Pertsona guztiek**, EITBren hedabideen bitartez, era guztietako eduki eta generoetarako **sarbidea izango dutela bermatzea**, euskal gizartearen aniztasunari erantzunez, euskaraz nahiz gaztelaniaz informazioaren, kulturaren, hezkuntzaren eta entretenimenduaren aldetik dituen beharrak asetzeko.
2. **Agente eraldatzailea** izatea, eta euskal gizarteari nahi duena izaten laguntzea. EITBk aldaketaren parte izan behar du, bere estrategian euskal erakundeek ezartzen dituzten Garapen Iraunkorreko Helburuak bere gain hartuta, gizarte aurreratu baten balioen bultzatzaile eta bermatzaile izanik betiere.
3. Euskal gizarteak bere erakundeen bitartez (politikoak, sozialak eta kulturalak) sortzen dituen **ekimenak biltzea**. Hala, EITBk bere gain hartzen du Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuen eremuan Prosperitate, Pertsona, Planeta eta Bakeari buruzko jarduerak programa-kontratuaren eta urtero onartutako gehigarrien esparruan garatzeko **konpromisoa**.
4. **Euskararen sustapena**, beraren presentzia hedabide guztietan bermatuz, zeren eta, komunikabide publikoa den aldetik, prestigioa hartzeko eta bizitza publikoan agertzeko oinarri nagusietako bat eta haren erabilera errazteko eta hedatzeko ezinbesteko baliabidea baita. **Euskara normalizatzeko** politikek garai digitalaren aliatutzat eduki behar dute EITB, eta gai izan behar dute; eta aski baliabide izan, euskararen eta euskal hiztunen neurriko unibertso digital bat sortzeko. Bereziki bultzatu behar dira haur eta gazte elebidunen



belaunaldi berriei zuzendutako edukiak, eta balio demokratikoak eta elkarbizitzakoak transmititu behar dira horietan, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren planteamenduen osagarri gisa.

5. Informaziorako eskubidea bermatzea. Eskaintzak biltzen dituen edukiek errealitatearen isla leiala izan behar dute, erreferentziazko informazio-iturrietan behar bezala egiaztatuak, eta praktika profesionalean askatasunaren eta pluraltasunaren defentsan engaiatuta dauden profesional oso kualifikatuek landuak.

Informazioa hainbat hedabidetako informazio-programen bidez eskainiko da, gizartearen eskariei behar bezala erantzuteko, eta euskal espazio publikoari, erakundeei, eragile politikoei, ekonomikoei, sozialei, kulturei eta gizarte zibila ordezkatzeko erakundeei arreta handia eskainiko zaie. Informazio-zerbitzuek sistema ireki bat izango dute behar bezala funtsatutako argibide- eta zuzenketa-eskaerarako.

6. Edukien ekoizpen propioa sustatzea, EITBren aktibo handi gisa eta balio-katea euskal ikus-entzunezkoen industriari dagokiolarik. Helburua jarduera ekonomikoa eta nortasun propioa sortzea da ikus-entzunezkoen euskal ekosistemaren kultura- eta sormen-industrietan.

7. Euskal ikus-entzunezko ekosistemarekiko aliantzak sendotzea, ekosistema hori garatzen laguntzeko asmoz, EITBk enplegua eta aberastasuna sortzea sustatzen duten enpresen eta profesionalen gaitasunak hobetzeko helburua du, baita Euskadin sortutako ekoizpenen eta edukien garrantzia laguntzekoa ere, kanpoan ezagutza eta irudia emanda.

8. Euskadiren leihoa izatea munduan, euskal kulturaren eta ekoizpenaren kontsumoa bultzatuz ikus-entzunezko ekosistema global berrian.

Era berean, **euskal kultura** munduan zabaltzea, arte- eta kultura-adierazpenak babestuz, eta Euskal Herriko egungo sorkuntza eta arte- eta kultura-ondarea zabaltzea, hedabide digital berrien bidez eta egungoak babestuz. EITBk, halaber, **euskal kirola** sustatzen eta hedatzen lagunduko du, zeren eta gizarte modernoentzat eta, bereziki, euskal gizartearentzat funtsezko egituratze-ardatzak garatzeko gaitasuna duela uste baitu, kirolak, gainera, pertsonen bizi-kalitatean zuzeneko ekarpena egiten duelako eta herrialdearen kohesiorako bidea ere badelako. Kirol-lehiaketek eta helburu zorrotzenek herrialdearen eta bertako pertsonen nortasunaren funtsezko alderdiak adierazten dituzte. Euskal selekzioek kide izatearen sentimendua garatzeko aukera ematen dute, eta, kirolaren bidez, harrotasuna eta seriotasuna erakusten dute herrialdea garen aldetik.

9. Teknologiara egokitzea, etengabeko bilakaera teknologikoaren aurrean erantzuteko gaitasuna hobetzea ahalbidetuko duten formula berriak kudeatuz. Era berean, herritarrei

plataforma eta eduki digitaletara sarbidea izatea errazteko, EITBk sarbide horren doakotasuna berma dezake.

10. **EITBren gaitasun korporatiboa hobetzea.** EITBk Aurrekontuen Legeak aurrekontuari eta plantillari buruz zehazten dituen helburuak beteko ditu, arriskuen kudeaketa eta etengabeko hobekuntza ekarriko duten kudeaketa aurreratuko ereduen bidez, betiere aplikagarri zaion araudia betetzea eta proiektua ekonomikoki eta finantzarioki jasangarri egitea bermatuz. Horrez gain, **gardentasun-printzipioak** aplikatuko ditu, eta dimentsio parte-hartzailea indartuko du, datuen gobernantzan oinarritutako informazio, komunikazio eta kudeaketa sistema baten bidez, gizartearekin informazio-truke erabilgarria, arina eta eraginkorra sustatzeko.

4. Zerbitzu publikoaren edukia: EITBren konpromisoak zerbitzu publikoa emateko


Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikus-entzunezko zerbitzu publikoaren zerbitzu emaille bezela, EITBren konpromisoa da euskal gizartearen eskaerei erantzutea, ikus-entzunezko informazio, dibulgazio eta entretenimendu eskaintza askotarikoarekin, erakargarriarekin eta kalitatezkoarekin, euskal kultura eta hizkuntza sustatuz eta egungo ikus-entzunezko ekosisteman euskararen normalizazioa, erabilera eta hedapena bultzatuz.

Kontsumo eta hedabide digital berrien aurrean, euskal eta euskarazko ikus-entzunezko edukien bermea izan behar du EITBek. Horretarako, EITBren komunikabideek informazioaren eta zerbitzu publikoaren erreferente izan behar dute euskal gizartearentzat, gazteekin konektatu behar dute, mundura irekitako euskal leihoa izan behar dute, eta "EITB proiektuaren" jasangarritasuna bermatu behar dute.

Jarraian zehaztutako konpromisoak gauzatzeko, EITBk bere laguntza eman dezake ikus-entzunezko zerbitzu hobea eman dezaten bai ikus-entzunezko komunikazioaren arloan, bai ekosistema digitalean, bai euskal ikus-entzunezko sektorearen sustapenean eta garapenean, bai ikus-entzunezko produkzio multimediaren produkzioko balio-katearen elementuetan beharrezko izan litekeen presentzian zein parte-hartzean. Jarduera horiek guztiek zuzenean bermatu eta lagundu beharko dute EITBk programa-kontratu honen arabera bere gain hartzen dituen konpromisoak hobeto betetzen.

Era berean, EITBk akordioak eta aliantzak egin ahal izango ditu zehaztutako konpromisoren bat sustatu edo bultzatzeko helburua duten hirugarren erakundeekin, sustatu nahi diren kausa zehatzak agerian uzteko, betiere ondoren zehazten diren konpromisoen esparruan badaude.

Horregatik, hauek izango dira programa-kontratu honen esparruko EITBren konpromiso nagusiak:



4.1.- 1. konpromisoa. Zerbitzu publikoa eta gizarte-konpromisoa

EITBk aurrera egin behar du euskal gizartearen errealitatearekiko konpromisoa eta gizarte-balioa ekarriko duen zerbitzu publikoaren eredu baterantz. **Agente eraldatzailea** izatea, euskal gizarteari izan nahi duena izaten lagunduz. Konpromiso hau honela gauzatuko da:

- 1.1. **Pertsona guztien sarbidea** bermatuz, hedabide guztien bidez, gizartearen aniztasunari erantzuna emanda.
- 1.2. Bere estrategia eta helburuak gizartearen aldetik arduratsua den kudeaketara bideratuz, gizartearen garapen iraunkorra bultzatuz, aktiboki parte hartuz eta bere bitartekoen bidez **Garapen Jasangarriko Helburuak** zabalduz.
- 1.3. **Prestakuntza eta eraldaketa sozialeko** eragileak izanik, gizartean eta aliantzetan eragiteko duen gaitasuna erabiliz, Euskadiren gizarte-aurrerapenean aktiboki lagunduz.
- 1.4. **Emakumeen eta gizonen berdintasunean** aurrera egiteko zeregin aktiboa hartuz, "pantailaren aurrean eta atzean" deiturikoa izanik ardatz transbertsala, bere eguneroko lanean eta kudeaketan presentē egonik, eta emakumeak eremu sozial eta produktibo guztietan ikusaraziz.
- 1.5. Era berean, **kultura-, arraza- eta sexu-aniztasunaren ikusgarritasuna** sustatzen duten ekintzetan aurrera egiteko konpromisoa hartzen da, bai eta **Euskadi sozialki kohesionatu eta plural** batean agertzen diren elementu guztietan ere.
- 1.6. Eduki, formatu eta plataforma berrien bidez, bereziki euskaraz, zerbitzu publikoaren misioa **gazteengana eta haurrengana** helarazteko ekintzak garatuz.

4.2.- 2. konpromisoa. Euskara eta euskal kultura

Euskara eta euskal kultura garatzea, sustatzea eta hedatzea EITB sortzeko 5/1982 Legean jasota dago. Zerbitzu publikoaren sorrerako printzipio horrek, EITBren izateko arrazoiak denak, berezko nortasuna ematen dio, bere ekintza guztiak ezaugarritzen ditu, eta ezin da kontsumo-ohitura berrietatik kanpo utzi; formatuak eta mediak eskari berrietara egokitu behar dira. Euskadi eraldatzeko funtsezko gaitako bat euskara, musika, zinema, ezagutza eta bizimodua zaintzea da, digitalizazioaren eta globalizazioaren garaian gure kulturaren parte baitira. Konpromiso hau honela gauzatuko da:


- 2.1. EITBren produkzio-eredua aldatzea, **kontsumo digitalaren** testuinguru berrian bere eskaintza zabaltzeko, eta kalitatetik eta irisgarritasunetik erakargarriak diren euskal eta euskarazko edukien presentzia bermatuko duen espazio bat emateko.
- 2.2. Erakunde publikoekin, euskal hezkuntza-sistemeekin eta gizarte- eta kultura-erakundeekin lankidetzan aritzea euskararen ezagutzaren eta erabileraren inguruan gizartea sensibilizatzea helburu duten **ekimenetan**.

- 2.3. **Munduan euskal kulturaren** leihoa izanik, arte eta kultur adierazpenak babestea, eta Euskal Herriko egungo sorkuntza zein ondare artistiko eta kulturala hedatzea, bai hedabide digital berrien bidez bai egungoen bidez.
- 2.4. Zabalkundea ematea **kultura-ohiturei** eta letretako, arteetako eta musikako diziplina eta adierazpen ezberdinei (irakurketa, antzokietara joatea, dantza-ikuskizunak, musika, zinema, etab.).
- 2.5. Sortu den edo sortuko den ikus-entzunezko **euskal ondarea babestea**, erakunde espezializatu eta inplikatuekin egindako akordioen bidez.
- 2.6. Euskadiko **tokiko hedabideei** euskara eta euskal kultura zabaltzeko laguntza ematea.

4.3.- 3. konpromisoa. Telebista, irratia eta etorkizuneko zerbitzu eta eduki digitalak

EITBk, zerbitzu publikoa den aldetik, formatu eta genero desberdinetako **ikus-entzunezko edukien ekoizlea eta hornitzailea** izan behar du, eta euskal gizartearen beharrei eta eskariei erantzun behar die, egungo alaketekin bat etorritz, **gizartearen, kulturaren eta hizkuntzaren** aldetik dituen eskari, behar eta berezitasunei erantzunez. Hori guztia EITB markaren **hurbiltasun eta konfiantza ezaugarriak** ahaztu gabe, balio gehigarria ematen baitiote. Konpromiso hau honela gauzatuko da:

- 3.1. Euskal gizarte osoarentzat **eskaintza** eskuragarria eginez, euskarazko eta gaztelaniazko edukiak eskainita.
- 3.2. **Edukien ohiko emisioak eta media digitaleko eskaintzaren sustapena** uztartuz (aurrez grabaturiko emanaldiak, eskariaren arabera, podcasta, etab.), euskal gizartearen ikus-entzunezko kontsumo-modu guztiei erantzuteko.
- 3.3. Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen den ikus-entzunezko ekoizpen guztia barruan hartuko duen **"Primeran"** plataforma digitala garatuz. Besteak beste, euskal ikus-entzunezko ekosistemak sortzen dituen euskal filmak, serieak, dokumentalak, ikuskizunak eta kontzertuak eskainiko ditu, ez bakarrik EITBk sorturikoak. Euskararen hedapena funtsezko misioetako bat izango da, orain kontsumo-ohituretan plataformen nagusitasunean ez duen espazio batez hornituko baita.
- 3.4. Erreferente sozial izango diren eta eduki eta formatu lehiakorrek sortzeko erronkari aurre egingo dioten **profesionalen talentua eta garapena** erakarriz.
- 3.5. Gure hedabideak **kalean egon daitezen** sustatzea, euskal gizartearekiko hurbiltasuna eta konpromisoa bultzatzeko.

Handwritten signature in blue ink and a circular stamp with the number 11 inside.

4.4.- 4. konpromisoa. Lidergoa informazioan

EITB sortzeko legean informazio-eskubideari buruz jasotako eta programa-kontratu honen 3.1. klausulan deskribatutako printzipioak betez, zerbitzu publikoaren osagaiak informazio-zerbitzuen izaera egituratu behar du, Euskal Irrati Telebistak gizarteari ematen dion balioa handitzeko. Horretarako, ikus-entzunezkoen euskal talde publikoa izaten jarraitu behar du, **informazioan aitzindari**. Konpromiso hau honela gauzatuko da:

- 4.1. Egunero **informazio-eskaintza osoa eta kalitatezkoa** egitea, euskaraz eta gaztelaniaz, telebistan, irratan eta Interneten.
- 4.2. **Eztabaida-programak, elkarrizketak, erreportajeak eta albistegi bereziak** eginez, euskaraz eta gaztelaniaz, gaurkotasuna aztertzeke hainbat hedabidetan, adituen, solaskideen, eta euskal gizarte osatzen duten sentsibiltate sozialen eta politikoen aniztasuna islatzen duten gizarte-eragileen parte-hartzearekin.
- 4.3. EITBren hedabide guztietan **zeharkako edukiak** eginez eta EITB talde gisa indartuko duen **"EITB agenda"** delakoaren aldeko apustua eginez.
- 4.4. Lehiakideei eta kontsumo-ohitura berriei erantzungo dieten **produktu eta informazio-hizkuntza berrien** gaineko berrikuntzak ezarri.
- 4.5. EITBko **profesional-taldeen** aldeko apustua eginez, informazioaren sinesgarritasuna eta zorrozatasuna bermatzeko.

4.5.- 5. konpromisoa. Erreferenteak kirolean

EITBk **euskal kirolaren** erreferentea izan behar du, Euskadiko kirol-kultura eta -ondarea jagoteko. Gainera, eraldaketa-eragile den aldetik, klubei eta kirolariei lagundu behar die beren proiektuetan, tokiko eta nazioarteko aintzatespena kirol-modalitate gehiagotara hedatzeko interes orokorraren alde eginez. Era berean, emakumeen berdintasunaren aldeko konpromisoa hartzen du kirolean, bai banakako kirolariei dagokienez, bai taldeko kirolei dagokienez. Konpromiso hau honela gauzatuko da:

- 5.1. **Kirolari** buruzko informazioa eta emanaldiak emateko eskaintza zabala eskainiz: pilota, estropadak, herri-kirolak, etab.
- 5.2. Modalitate guztietako kategoria handienetan lehiatzen diren **euskal taldeen eta kirolarien kirol-lehiaketa** garrantzitsuenen informazio-estaldura eta zuzeneko emanaldiak eskainiz, betiere aurrekontu-gaitasunaren eta eskubideak eskuratzeko prezioaren arrazoizkotasunaren irizpidea kontuan hartuta.

- 5.3. **Emakume kirolariei** lagunduz, haien presentzia sustatuta eta komunikabideetan tratamendu egokia emanda, berdintasunaren bidean aurrera egiteko eta dagokien aintzatespena izateko.
- 5.4. Erakunde, klub eta antolakundeekin **itunak** eginez, lehiaketa eta kategoria guztietan euskal kirolari laguntzeko, eta programa, babes eta kanpaina bereziak egitea proposatuz.
- 5.5. **Euskadiko selekzioko emakumeen eta gizonen** partidei edo lehiaketei buruzko informazioa eta emanaldiak eskainiz.
- 5.6. **Ekoizpenaren berrikuntzaren** alde eginez kirol-ekitaldien estalduran.
- 5.7. **Kirolaren eta ariketa fisikoaren aldeko** jarrera sustatuz eta zabalduz, bizimodu osasungarria bermatzeko modurik onena den aldetik.

4.6.- 6. konpromisoa. Euskal ikus-entzunezkoen ekosistemarekin ituna

EITBk **euskal ikus-entzunezkoen ekosistema** garatzen lagundu behar du, enplegua eta aberastasuna sortzea sustatzen duten enpresen eta profesionalen gaitasunak hobetzeko, eta Euskadin sortzen diren ekoizpenak eta edukiak kanpoan ere ezagutzeko, irudi egokia emanez. Konpromiso hau honela gauzatuko da:

- 6.1. EITBren eta ikus-entzunezko ekoizpen-enpresen arteko harremanetan **kudeaketa-eredu gardena** garatuz, EITBren eskubideak babestuz, bereziki euskaraz.
- 6.2. Ikus-entzunezkoen produkzioan **berrikuntza eta sormena** sustatzen duten dinamikak bilatzea, baita Euskadin ekoiztako edukiak maila globalera ere zabaltzea lortzeko itunak ere.
- 6.3. **"Miramon Faktoria"** lankidetza-proiektu publiko-pribatua abian jartzea, ikus-entzunezkoen produkzioaren erreferentziatzeko zentro gisa sendotzeko.
- 6.4. **Edukien ekoizpen propioa**, barnekoa, elkartua edo mistoa sustatuz, ikus-entzunezkoen industriaren sustapen ekonomiko eta sortzailerako.
- 6.5. **Ikus-entzunezkoen ekoizpen independentea** finantzatuz eta lagunduz, legeak eta euskal ekosistema adibisualarekin sinatutako lankidetza-akordioek jasotako baldintzetan oinarrituta.
- 6.6. Jarduera ekonomikoa sustatzeko, ikus-entzunezkoen euskal ekosistemaren eremuko enpresen **bikoizketa** kontratatuz.
- 6.7. Aldian-aldean **sektoreko eragileekin bilerak** eginez, EITBren estrategia partekatzeko.

- 6.8. Euskal Herriko eta Europako **film luzeak, film laburrak eta dokumentalak** sustatuz, EITBren hedabideetan emitituz.
- 6.9. Sortutako edo sortuko den **euskal ikus-entzunezkoen ondarea** zainduz, erakunde espezializatu eta inplikatuekin egindako akordioen bidez.

4.7.- 7. konpromisoa. Teknologiaren kudeaketa aurreratua

Tresna teknologikoen bilakaera azkarrak eta bizitza laburrak eta ekoizpen-beharrek ezinbestekoa egiten dute EITBn teknologiaren kudeaketa eta ezarpena birplanteatzea, bai aurre egin behar dien erronkak detektatzeko, bai proiektu azkarrak kudeatzeko ereduetan aurrera egiteko, aldaketa bakoitzera garaiz eta kalitatez iritsi ahal izateko eta lehiakortasuna mantendu ahal izateko. Konpromiso hau honela gauzatuko da:

- 7.1. **Teknologiaren kudeaketa berria** ezarriz, bere zerbitzu digitalen eskuragarritasuna eta kalitate teknologikoa bermatuko duten sistemak eta tresnak berritzeko.
- 7.2. Merkatu-kontsumitzaileen beharrei eta erritmoei erantzuteko **prospektiba eta joera teknologikoko mekanismoez hornitzea**.
- 7.3. **Antolaketa-praktika onenak** egokituz, prozesuen administrazio orokor baten bidez, EITBren edukien eskaintzaren bilakaera erraztuz, erreferentzia gisa kalitate-estandar maximoak kontuan hartuta.
- 7.4. **DATA eta Inteligentzia artifizialeko** teknologiak eta kudeaketa-gaitasunak ezarriz.

4.8.- 8. konpromisoa. Etorkizunean inbertitzea

EITBk etengabe **inbertitu eta planifikatu behar du etorkizunerako**, horrela erantzuteko ikus-entzunezkoen ekosisteman gertatzen ari diren aldaketei, bai edukiak kontsumitzeko eta ekoizteko moduan, bai horretarako behar diren teknologien erabileran eta kudeaketan. Egokitzeko gaitasuna funtsezkoa da. Konpromiso hau honela gauzatuko da:

- 8.1. **Inbertsio-plan** baten bidez EITBren beharrianak eta konpromisoak kudeatuz.
- 8.2. **Egoitzak modernizatzeko plan bat** definituz, beraren bidez lan-espazio berriak sortzeko. EITBren posizionamendua indartu dezaketen berrikuntza- eta eraginkortasun-prozesuak aurrera eramateko moduko espazioak izan behako dute.
- 8.3. EITBren **instalazioak** modernizatu eta mantentzea, indarrean dagoen araudira egokitzeko, **energia-eraginkortasuna** hobetzea barne, EITBk kutsadura murrizteko konpromisoa har dezan lagunduz.

- 8.4. **Bulego tekniko** espezifiko bat, proiektuak bultzatzeko gaitasun juridiko-administratiboak izango dituen.

4.9.- 9. konpromisoa. EITB Enpresa

EITBk **erreferentziazko enpresa** izan behar du **kudeaketan**, eta indarrean dagoen legeria aplikagarria betetzen dela bermatzea eta bere jarduera kontrolatzeko eta ebaluatzeko eredu aurreratuak bilakatzea ahalbidetuko dioten sistemak inplementatu behar ditu. Konpromiso hau honela gauzatuko da:

- 9.1. Aurrekontuen Legean **aurrekontuari eta plantillari buruz** xedaturiko helburuak betez, lege ezarritako auditoretzak egingo ditu, baita Eusko Legebiltzarraren edo Eusko Jaurlaritzaren aginduz ezarritako beste guztiak ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren edo Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren bidez.
- 9.2. EITBren proiektuaren **finantza-iraunkortasuna** bermatzea
- 9.3. **Giza baliabideen plan** bat hedatuz, EITBko talde profesionalen integrazio eta egonkortasun handiagoa lortzeko balioko duena, pertsonak eta garapen profesionala txertatzeko eredu bat finkatzeko apustua izateaz gain.
- 9.4. Etengabeko hobekuntzarako printzipioak ezarriko dituen **kudeaketa-sistema** bat garatuz, legeria betetzea bermatuko duena, nazioarteko kudeaketa-ereduak erreferentziazkat hartuko dituzten aldizkako ebaluazioak eginez (ISO 9000; ISO 45000; ISO 14000), baita egokitzen jotzen dituen guztiak ere.
- 9.5. Arriskuak kudeatzeko sistema bat aplikatuz, **Araudia Betetzeko eta Delituak Prebenitzeko Planaren** (*compliance* penala) ezarpena sendotuz, kultura etikoa bultzatuz eta EITB Taldeari aplikatu beharreko araudi guztia betetzen dela bermatuz.
- 9.6. Ingurumen politika integrala ezartzea, EITBren jarduerak ingurumenean sortzen duen eragina murrizteko, eta gizarte eta gure kolaboratzaileak kontzientziazteko eragin positibo baten bidez.
- 9.7. **Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren** eredu egiaztatuz, informazio ez-finantzarioaren egoera-txostenaren bidez, aplikatu beharreko legerian ezarritakoaren arabera. Memoria hori kanpotik egiaztatuko da eta Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.

4.10.-10. konpromisoa. Gobernantza publikoa eta itunak sortzea

EITBk bere **gobernantza publikoko** sistema sendotu behar du, Euskal Irrati Telebista arautzen duen Legeak ezarri dituen kontrol eta kudeaketa publikoko organoekin lankidetzan arituz, eta

15

erakundeen, beste eragile batzuen eta euskal gizartearen aurrean legitimitatea zabalduz. Konpromiso hau honela gauzatuko da:

- 10.1. EITBrako **esparru estrategiko** bat ezarri, lehentasunak eta proiektuak zehaztuko dituen, eta ondoren jarraipena eginez eta eguneratuz, kudeaketa-sistema definitzeko.
- 10.2. Gizartearekiko, alderdi interesdunekiko eta plantillarekiko lotura indartuko duen **gardentasun-eredu** bat definituz eta ezarri, politika parte-hartzaileak eta komunikazio-eta informazio-politikak hartuta.
- 10.3. **Jendeari arreta emateko** sistema integral eta zeharkakoa ezarri, gizartearekin harremanak izateko modu berri bat definituko duena eta parte-hartzea eta hurbiltasuna bultzatuko dituen.
- 10.4. **Akordioak eginez unibertsitateekin eta prestakuntza-zentroekin**, ikasleek lan-merkatuari begira behar dituzten gaitasun profesionalak eskuratzea eskain dezakeen beka-sistema bat sustatzeko helburuarekin.
- 10.5. **Erakunde, fundazio eta entitateekin aliantzak** eratuz gizarte-konpromisoko kausa eta ekimenen inguruan antolatuta, modu horretara aldaketaren parte bihurtzeko eta gizarte-kultura- eta bizikidetzatza-balioen benetako bultzatzaile eta bermatzaile izateko; labor esanda, erreferentziako hedabide-taldea izateko.

4.11. Konpromisoari lotutako adierazleak

Atal honetan, adierazle-zerrenda bat jaso da, programa-kontratu honen baitan EITBek datozen urteetarako hartzen dituen konpromiso nagusiak monitorizatzeko eta neurtzeko. Adierazleak **fidagarriak** izan behar dute, eta helburuen trazabilitatea ahalbidetu behar dute.

Konpromisoari lotutako adierazleak

2022-2025 helburuak

ITUNAK ETA GOBERNANTZA

Gizarte- eta kultura-eragileekin egindako hitzarmenak eta baterako ekintzak eta babes-ekintzak : Euskara, Kultura; Osasuna; Berdintasuna; Aniztasuna; Larrialdi klimatikoa; Gazteria, Kirola. Euskara. (urte kop.)	75 / 100
EITBk gazteen talentua eta sormena bultzatzea:	
▪ Gradu unibertsitate bekak (kop.)	90 / 120
▪ Praktikak txandaka/prestakuntza duala (kop.)	25 / 40
▪ Prestakuntzako beka/praktiketarako itunpeko ikastetxeak (kop.)	20 / 30
▪ EITBren Masterra: matrikulaturiko ikaslea (kop.)	20
EITBren Gardentasun Ataria	
▪ Bisitariak atarian, guztira	Adierazle informatiboa
▪ Informazio eskubiderako eskabideak	Adierazle informatiboa
▪ Funtzionalitate berriak	Adierazle informatiboa
EITBko publikoari arreta ematea	
▪ Eginiko galderak eta erreklamazioak (kop.)	Adierazle informatiboa
▪ Erantzuna emateko denbora	Adierazle informatiboa
Kanpoko erakundeen auditoriak eta ebaluazioak .	5

Kutsadura murrizteko konpromisoa: CO2 emisioen kontrola (Tonak urteko)	1.000 / 700
--	-------------

ZABALKUNDEA ETA SUSTAPENA

Gizarte-balioak: Edukiak hainbat hedabidetan: (edukiak urteko):	
▪ Feminismoa eta generoa (genero arloan eragina)	1.000 / 3.000
▪ Klima larrialdia	1.000 / 3.000
▪ Aniztasuna (sexuala, arrazakoa, etab.)	1.000 / 3.000
▪ Garapen Jasangarriko Helburuak (ODS)	1.000 / 3.000
▪ Zientzia eta ikerketa	1.000 / 3.000
▪ Kultura eta artea	1.000 / 3.000
Euskal ikus-entzunezkoen ekoizpenaren zabalkundea (hainbat hedabidetan emitituak)	
▪ Euskal zinema (tituloak urteko)	35 / 45
▪ Euskal zinemako film laburrak (tituloak urteko)	35 / 45
▪ Barne-produkzio, enkarguko edo produkzio elkartuko fikzio telesailen eta dokumentalen programak/atalak	60 / 90
Europako zinema: (tituluak (hainbat hedabidetan emitituak urteko)	100 / 120
Ekoizpen propioa, enkargua edo koprodukzioa	
▪ Euskaraz ekoiztutako orduak	
▪ Gaztelaniaz ekoiztutako orduak	
ETBk euskal ekoizleen aldeetik jasotako programa proiektuak urteko.	
Diru-laguntza euskal zinemarako. %6ko inbertsioa	
▪ Gastua gauzatzea + inbertsioak (milaka €tan)	Hartutako konpromisoak betetzea
▪ Ekoizpena inbertsioarekin euskal zinemari (% 6) (orduak urteko)	

ESKAINTZA

Informazio-zerbitzuak:

▪ Telebistako albistegiak (orduak-programak urteko)	3.000 / 3.400
▪ Informazioaren arloko programak telebistan: Eztabaidak, elkarrizketak, erreportajeak eta bereziak (orduak-programak urteko)	1.100 / 1.400
▪ Irratiko albistegiak (orduak-programa urteko)	4.800 / 5.800
▪ eitb.eus: Aktualitateko edukiak (kirolak salbu) (kop.)	34.000 / 40.000

Kirolak modalitateen arabera (kategoria femeninoa eta maskulinoa) (emankizunak urteko) :

▪ Pilota	135 / 165
▪ Traineruak, Estropadak	18 / 22
▪ Herri kirolak	32 / 40

Emakume kirolarien presentzia:

▪ Telebista (Programak, albisteak, elkarrizketak, erreportajeak urteko)	1.200 / 1.500
▪ Irratia (Programak, albisteak, elkarrizketak, erreporajeak urteko)	1.200 / 1.500
▪ Internet (albisteak, elkarrizketak, erreportajeak urteko)	1.200 / 1.500

BALIABIDEEN KUDEAKETA

Ustiapen-aurrekontua aurrekontu-oreka baterako kontuetan (milaka €tan)

- Sarrerak guztira ekitaldia ixtean
- Gastuak guztira (amortizazioak baino lehen) ekitaldia ixtean

Aurrekontuak ekitaldi bakoitzeko aurreikuspenekin egingo dira, diru-sarrera publikoak + diru-sarrera propioak gehituta

Inbertsioetan gauzaturiko aurrekontua (zinema kenduta)

Plantilla kontu bateratuetan: Aurrekontuan jasotako plantilla

Egokitzapen teknologikoko proiektuak (kop.)

+ Euskal gizartean izandako inpaktua (urteko inkesta)

+ Audentziaren emaitzen urteko txostena

5. Konpromiso berriak.

Programa-kontratu honetan berariaz agertzen ez diren eta EITBren programazio-, gastu- edo inbertsio-betebeharrei eragiten dieten konpromiso berriak ezartzeko, programa-kontratu hau aldatzeko prozedura erabili beharko da, 11. klausulan ezartzen dena.

6. Konpromisoen betetze-maila

10. klausulan aipatzen diren kontrol- eta jarraipen-organoek egingo dute programa-kontratu honen bidez EITBk bere gain hartzen dituen zerbitzu publikoko helburu eta zereginak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena eta kontrola. Horretarako, klausula horretan aurreikusten den Jarraipen Batzordeak 4. klausulan eta hurrengoetan zehaztutako konpromiso-talde bakoitzaren betetze-maila egokia zehaztuko du.

7. EITBren zerbitzu publikoko jarduera finantzatzeko modua

EITBren finantzaketa mistoa da, iturri publiko eta pribatuetatik diru-sarrerak jasotzen baititu, baina EITBk baliabide propioen sorrera hedatu behar du, finantzaketaren **oreka ekonomikoaz** arduratuz.

EITBk jaso ditzakeen diru-sarrerak honela sailka daitezke:

- a) Eusko Jaurlaritzaren ekarpena, 8. paragrafoan zehaztutako baldintzetan.
- b) EITBk ekitaldi bakoitzean lortutako merkataritzako edo bestelako diru-sarrerak, guztira.
- c) Eusko Jaurlaritzak baimendutako kreditu- edo mailegu-eragiketen ondoriozko zenbateko guztiak. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 35. artikuluan eta aplikatu daitezkeen gainerako lege-aurreikuspenetan xedatutakoa bete beharko da.
- d) Ikus-entzunezko komunikazio-jardueran EITBk bere baliabideak eta ondarea kudeatzetik edo edozein negozio juridiko hitzartetik eratorritako beste diru-sarrera batzuk.

Horrez gain, programa-kontratu honek eta haren balizko luzapenek iraun bitartean, aurreikusita dago Europa mailako hainbat laguntza aktibatzea, Europar Batasunaren modernizazioaren eta iraunkortasunaren oinarriak ezartzeko, Next Generation EU Planaren esparruan. Tresna horren helburua da SARS-COV-2 birusak eragindako pandemiak sortutako krisiaren ondoren susperraldia sustatzea eta Europa ekologikoagoa, digitalagoa eta erresilienteagoa sustatzea.

Illo horretan, EITBk bere hautagaitza bultzatuko du horretarako egiten diren deialdietan jasotzen diren laguntzak lortzeko, banaka edo lankidetzara publiko-pribatuaren bidez. Horretarako, beharrezko kudeaketa-tresna guztiez hornitu beharko da, Europako Funtsen kudeaketa erregulatzen duen araudi orokorrak eta laguntza eta deialdi zehatzek eskatzen dutenaren arabera, kasuz kasu.

Horrez gain, EITBrentzat diru-sarrerak sor ditzaketen Next Generation EU Europako Funtsez bestelako laguntzak, deialdiak edo prozedurak aktibatzen badira, EITBk parte hartu ahal izango du zerbitzu publikoko helburuak eta konpromisoak lortzen lagun dezaketen funtsak lortzeko.

EITBk jaso ditzakeen funtsak, hala badagokio, eta Eusko Jaurlaritzari horren berri eman ondoren, diru-laguntza ematea eragin duten proiektuetara bideratuko dira, eta beti egon beharko dute lotuta programa-kontratu honetan definitutako zerbitzu publikoko konpromisoekin.

8. Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak

8.1. Ibilgetuaren inbertsioak finantzatzeko ekarpenak

Ikus-entzunezkoen eta komunikabideen sektorea da teknologia- eta digitalizazio-bilakaera etengabearen eragin handiena jasaten duenetako bat. Ingurune teknologiko eta sozial aldakor horrek berrikuntza-prozesuak sortzen ditu, abiadura handian garatzen direnak eta EITBren jardueran zuzenean eragiten dutenak.

Horrez gain, informazioaren teknologien aurrerapenak ikus-entzunezko esperientzia berriak eta datuen transferentzia- eta irisgarritasun-mailak ahalbidetzen ditu edukien kontsumoan.

Ikus-entzunezko sektorea edukiak kontsumitzeko eta ekoizteko moduan gertatzen ari den aldaketa horiek eragin zuzena dute teknologien erabileran eta kudeaketan eta produkzio-bitartekoetan.

Horregatik, beti ere zerbitzu publikoaren misioa eta programa-kontratu honetan harturiko konpromisoak betetze aldera, EITBk, ohiko inbertsioez gain, aparteko inbertsioak behar ditu, batetik, berrikuntza teknologikorako eta Data eta Adimen Artifizialaren kudeaketarako duen gaitasunari lotutakoak, eta, bestetik, ekoizpen-bitarteko berrietarako edo lehendik daudenak hobetzeko.

Errealitate areagotua, edukien birtualizazioa eta bestelako teknologiak indartsu datoz ikus-entzunezko sektorera eta, beraz, EITBk berrikuntza eta sormena areagotuko ditu aukera teknologiko berrietatik abiatuta.

Horretarako, EITBk badu Inbertsio Plan bat, EITBren egoitzak modernizatzeko plana eta Proiektuen Liburutegi bat jasotzen dituen, erakundearen aurrekontu-ahalmenetara egokitzeko behar den malgutasuna emateko.

Beraz, programa-kontratu honek jasotzen dituen konpromisoak hobeto betetzeko, beharrezkoa izango da EITBk honako hauek egitea:

- Inbertsio estrategikoak, epe ertain eta luzean Taldearen lehiakortasunean eragina izango dutenak eta, aldi berean, EITBk onartutako plan estrategikoa behar bezala gauzatzeko funtsezkoak izango direnak.
- Zaharkitzapenagatiko birjarpen-irizpideei lotutako inbertsioak, bai eta egokitzapen teknologikoari lotutakoak ere, oinarritzko zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko eta taldearen

azpiegiturak teknologikoki eta pixkanaka gizarteari zerbitzua ematen jarraitzeko beharrezkoa den bilakaera teknologikora egokitzeko.

Ibilgetu material eta ez-material berriak eskuratzeko edo zaharra birjartzeko egin beharreko inbertsioak finantzatzeko, Eusko Jaurlaritzak, Aurrekontuen Lege-proiektuetan, ekarpen hauek egingo ditu EITBren eta haren sozietate kudeatzailearen inbertsioetarako, euro arruntetan:

Inbertsio-proposamena	2022	2023	2024	2025
Ordezkatzeak edo berritzeak	4.400.000 €	4.400.000 €	4.400.000 €	4.400.000 €
Estrategikoak	1.900.000 €	2.930.000 €	2.550.000 €	7.050.000 €
Miramon	1.500.000 €	11.000.000 €	7.500.000 €	----
GUZTIRA	7.800.000 €	18.330.000 €	14.450.000 €	11.450.000 €

EITBk Jarraipen Batzordeari inbertsio-proiektuen xehetasunak eta urteko plangintza aurkeztuko dizkio.

8.2. Ustiapen-gastua konpentsatzeko ekarpenak

Diru-sarrera propioen (publizitatea saltzea eta kudeaketako beste sarrera batzuk) eta ekitaldi bakoitzean EITBri esleitzen zaion zerbitzu publikoko lanak sortutako guztizko gastuen arteko aldea orekatzeko, Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du Aurrekontuen Lege-proiektuetan behar beste ekarpen egiteko.

2022. urterako Gobernuak 147.707.000 euroko transferentzia bat xedatu du.

Hurrengo ekitaldietarako ekarpenetan, behar adina aurrekontu-zuzkidura (baliabide) sartuko dira, EITBren erantzunkidetasunaren eta iraunkortasun ekonomikoaren bermean oinarrituta, bere jarduera programa-kontratu honetan ezarritako baldintzetan gauzatzeko behar diren ekintzak gauzatzeko, eta proiektuari arrakasta-bermeekin ekiteko, behar besteko finantzaketarekin zuzkituta.

- Ekarpen horiek kontuan hartuko dute programa-kontratu honetan definitutako zerbitzu publikoko konpromesuei lotutako proiektu zehatzak, funtsezkoak eta enborrekoak indartzeko beharra.
- Ekarpen horiek egiturazko plantilla hartuko dute kontuan, proiektuari epe ertain eta luzean eusteko, bai eta beharrezko lanbide-sailkapenaren ondoriozko etorkizuneko homogeneousazioari lotutako kostuak ere.
- Ekarpenek, gainera, 2023, 2024 eta 2025 ekitaldietan ezarritako ordainsari-igoerak jasoko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren jarraibideen arabera, eta soldata-igoerei dagokienez

aurrekontu-ekitaldi bakoitzean legez aplikatzekoak direnak (baita gizarte-segurantzaren kotizazio-oinarrien aldaketekin edo soldata-masari eragiten dioten beste kontzeptu batzuekin lotuta egon daitezkeen beste aldaketa batzuk ere).

Erantsitako zenbateko horiek ekitaldi bakoitzean gauzatuko dira, proiektu zehatzetan oinarrituta, erantzunkidetasuna eta iraunkortasun ekonomikoa bermatzeko alderdiek partekatutako irizpidearen arabera, eta programa-kontratu honetan ezarritako konpromisoak betetzeari lotuta.

8.3. Europako zinema-lanetarako nahitaezko finantzaziorako ekarpenak.

Zinemako inbertsioak finantzatzeko, aplikatzekoa den araudia betez, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du ETBren inbertsioetarako ekarpen hauek kontsignatzeko Aurrekontuen Lege-proiektuetan, euro arruntetan:

2022	2023	2024	2025
6.000.000 €	6.100.000 €	6.250.000 €	6.400.000 €

EITBk zinemako inbertsio-proiektuen xehetasuna eta plangintza aurkeztuko dizkio Jarraipen Batzordeari.

8.4. Kanpaina eta iragarki instituzionalak emateagatiko ekarpena

Eusko Jaurlaritzak kanpaina eta iragarki instituzionalak zabaldu ahal izango ditu irrati eta telebistako kanaletan, Interneten eta, hala badagokio, EITBren euskarri berrietan, eta konpromisoa hartuko du kanpaina eta iragarki instituzional horiek hedatzeko hartzen dituen espazioei dagokien ekarpen ekonomikoa egiteko.

EITBren komunikazio-kanaletan kanpaina eta iragarki instituzionalak ematea, nolanahi ere, EITBren zerbitzu publikoaren jardunean egin beharko da, kontratu-programa honen eta aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Kanpaina eta iragarki instituzionalen emisioari dagokionez EITBri dagokion ekarpen ekonomikoa kuantifikatzeko, kanpaina edo iragarki horren ardura duen administrazio-organoak adenda exekutibo bat izapidetu beharko du, eta, hala badagokio, gizarte hedabideen alorrean eskumena duen zuzendaritzako titularrak onartu beharko du. Espedientean jaulkipenaren kostu garbia justifikatu beharko da.

8.5. Berariazko jarduketa gehigarriak

Programa-kontratu honen helburu eta xedeen esparruan, ekitaldi bakoitzerako jarduera espezifiko gehigarriak zehaztu ahal izango dira, 8.1, 8.2, 8.3 eta 8.4 puntuetan adierazitakoez gain, ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzu publikoaren misioa betetzeari dagokionez garatu beharrekoak, hala eskatzen badute (programa bereziak, babesletzak, etab.).

EITBri dagokion ekarpen ekonomikoa kuantifikatu aurretik, jarduketa hori programa-kontratu honen xedera egokitzen den aztertu beharko da.

Horretarako, jarduera espezifiko horren ardura duen administrazio-organismoak adenda substantibo bat izapidetzeko eskatu beharko dio gizarte-hedabideen arloko eskumena duen zuzendaritzari, eta, hala badagokio, gizarte-hedabideen arloko eskumena duen saileko titularrak onartu beharko du, Jarraipen Batzordeak proposatuta.

9. Indarraldia.

Finantzaketa-esparru egonkor honen indarraldia 2022ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Alabaina, indarraldia amaitutakoan, luzatutzat joko da, bertan ezarritako baldintzetan, hurrengo programa-kontratua indarrean jarri arte, hargatik eragotzi gabe Jarraipen Batzordeak luzapenari egokitu dakizkiokeen baldintzei buruz har ditzakeen erabakiak. Luzapen-aldia indarrean egongo da baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago.

10. Kontrola eta jarraipena.

10.1. Zerbitzu publikoko eginkizunaren kontrola

EITBren zerbitzu publikoko eginkizunaren gaineko kontrola errazteko asmoz eta aurretik aipatutako irriti-difusioko zerbitzuei estatu-laguntzak ematearen arloko arauak aplikatzeari buruz Europako Batzordearen zuzentarauan ezarritako kontrol-eskakizunaren ondorioetarako, agindutako zerbitzu publikoko eginkizuna gauzatzeari buruzko txostena bidaliko dio EITBk urtero Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 20. artikuluan jasotzen den Eusko Legebiltzarreko EITBren Kontrolerako Batzordeari, bai eta Eusko Jaurlaritzari ere, haren jarduera, programazio, zerbitzu eta emanaldi guztiak adierazten dituen.

Halaber, EITBk zerbitzu publikoko eginkizun hori benetan betetzen den baloratzeko eskatzen zaion informazioa aurkeztuko dio Legebiltzarreko Batzorde horri.

10.2. Europar obraren finantziazio betebeharren kontrola

Film laburrak, film luzeak eta telebistako filmak aldeztu aurretik finantzatzeko, **inbertsioen betebeharrak eta emanaldien betebeharrak bete direla egiaztatzea.**

EITBk betebeharrak horiek betetzeari buruzko txostenak bete eta bidali beharko ditu, Telebista-operadoreen emisio-betebeharrak eta film luze eta film labur zinematografikoak eta telebistarako filmak aurrez finantzatzeko inbertsio-betebeharrak ezartzen dituen azaroaren 27ko 215/2007 Dekretuan ezarritako baldintzekin eta epeen barnean.

10.3. Programa-kontratuaren kontrola eta jarraipena

1. Programa-kontratu hau sinatu eta hilabeteko epean, Jarraipen Batzordea eratuko da, bertan xedatutakoa behar bezala betetzen eta koordinatzen dela ziurtatzeko.
2. Honako hauek osatuko dute Jarraipen Batzordea:
 - Lau ordezkari, Eusko Jaurlaritzak izendatuak, Kultura eta Hizkuntza Politika (gizarte-hedabideak), Aurrekontu eta Lehendakari-tza arloetan eskumenak dituztenen artean.
 - EITBk izendatutako lau ordezkari.
3. Jarraipen Batzordea balio osoz eratzeko, kideen gehiengoaren quoruma beharko da (gutxienez bost kide).
4. Jarraipen Batzordearen erabakiak gehiengoz hartu beharko dira.
5. Jarraipen Batzordearen bileretara bertaratuen gehiengoak onartzen dituen pertsona guztiak joan ahal izango dira gai zehatzetarako; pertsona horiek bileretan parte hartu ahal izango dute, hitzarekin baina botorik gabe.
6. Jarraipen Batzordeko lehendakaria Eusko Jaurlaritzaren ordezkarietako bat izango da beti, eta kalitatezko botoa izango du erabakiak hartzeko. Hauek izango dira batzordekideak:
 1. Koordinatzaileekin etengabeko harremanak izatea, programa-kontratuaren kudeaketari dagokionez.
 2. Administrazio sinatzaileari egindako kudeaketa guztiaren eta lortutako emaitza guztien berri ematea.
 3. Informazio-truke oro koordinatzea.
7. Halaber, **Jarraipen Batzordeak**:
 1. EITBren jardueraren jarraipena egiteko aldizkako bilerak egingo ditu, programa-kontratuaren esparruan adostutakoaren arabera.
 2. Programa-kontratuaren helburuen betetze-maila egokia ezarriko du, 4. klausulan eta hurrengoetan zehaztutako konpromiso bakoitzari dagokionez, eta ekintza horiei lotutako adierazleak zehaztu, egokitu eta eguneratuko ditu.
 3. Finantzaketa-esparru egonkor honetan adostutako konpromisoen betetze-maila ebaluatuko du, onartzen duen prozeduraren arabera.

4. Neurri egokiak proposatuko ditu, hala badagokio, egon daitezkeen desbideratzeak zuzentzeko.
5. Era berean, kontratu-programaren doikuntzak adostuko ditu, baldin eta kontratu-programaren aldaketa esanguratsurik ez badakarte edo oinarrizko magnitudeak aldatzen ez badira, eta ondorioz 11. klausularen arabera aldaketarik behar ez bada.
6. Programa-kontratuan gehitu beharrekoak proposatuko ditu, eta ekitaldi bakoitzean txertatuko dira, jarduera espezifikoak garatzeko, 8.5. klausularekin bat etorritik.
7. Horrez gain, Jarraipen Batzordeari kontratu honetan esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak dagozkie.

10.4. Finantzazioaren kontrola

Programa-kontratu honetako 7. klausulan zehazturiko diru-sarreretatik EITBk hartzen duen diru-kopurua ezingo da izan zerbitzu publikoko eginkizuna programa-kontratu honetan zehaztuta dagoen moduan betetzeak dakartzan kostuak baino altuagoa.

Horregatik, dagokion araudiak eskatu bezala, une honetan EITBn ezarrita dauden finantza-kontrolerako mekanismo egokiek jardunean jarraitu beharko lukete, behar bezala egiazta dezaten EITBk eskuratzen duen finantzazio publikoa ez dela berezko diru-sarrera komertzialek edo bestelakoek ordaindu gabe uzten duten kostua baino handiagoa.

11. Programa-kontratuaren aldaketak

Programa-kontratu hau aldatu ahalko da, indarrean dagoen bitartean, Jarraipen Batzordeak proposatuta eta sinatzaileak ados jartzen badira aurretik. Aldaketa eranskin gisa gehituko da.

12. Izaera

Programa-kontratu honek administrazio-izaera du eta, horren ondorioz, Administrazioari dagokio hori interpretatzea eta betetzeko orduan sortzen diren zalantzak ebaztea.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiek testu honen eta eranskinaren hiru ale sinatu dituzte, adierazitako tokian eta egunean.

Bingen Zupiria Gorostidi jn.
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua



Andoni Aldekoa de la Torre jn.
Euskal Irrati Telebista - Radio Televisión Vasca
herri-erakundeko zuzendari nagusia



1. The first part of the report deals with the general situation of the country.

2. The second part of the report deals with the specific situation of the country.

3. The third part of the report deals with the specific situation of the country.

3.4. Conclusions and recommendations

The first conclusion is that the country is in a state of economic crisis.

The second conclusion is that the country is in a state of economic crisis.

3.5. Recommendations

The first recommendation is that the country should implement the following measures.

3.6. Annexes

The first annex is the list of the members of the committee.

The second annex is the list of the members of the committee.

The third annex is the list of the members of the committee.

The fourth annex is the list of the members of the committee.